

KONTROL MOZIOA

Udalak bere zerbitzu guztietan donostiarren hizkuntza hautua bermatzeko konpromisoa dela eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko apirilaren 8an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak duen altxorrik preziatuenen artean, herritar asko eta askorentzat preziatuena ere, euskara dugu. Udalak euskararen etorkizuna zaintzeko eta eguneroko erabilera praktika ohikoa izateko esfortzu handiak egin eta indar ugari inbertitu ditu, aurrerapenak tamainakoak eginez baina asko falta da eta geldiarazte zein atzerapen bakoitza latza da, atzera-bueltan jartzen gaituelako.

Udaleko erakunde publikoak, noski, lerratu dira Udalaren estrategia eta helburuekin euskarari dagokionez. Are eta gehiago Udalak bere plangintzaldian erakundeetan eragiteko helburuak jarri zituen, udaleko egitura zatituak ez duelako eragotzi behar donostiarrek jaso behar duten tratua udalaren partetik, Udaleko langileak direnean edo udaleko erakundeetako langileak direnean ere. Hala banaka banaka Erakundeek beren plan propioak ere onartu dituzte, batzuek 2015ean sozietateren eta Udalaren artean sinatu zen lankidetzeta-hitzarmenaren ondorioz, eta beste batzuek aurretik: Dbus sozietatea, Donostia Kultura EEP, Sustapena sozietatea, Turismo sozietatea,... Hitzarmen horien bidez, sozietateen baliabide propioez kontatzeaz gain, Udalaren baliabide berezien laguntza ere izan eta izango dute.

Donostiako Etxegintza EEP oso udal erakunde inportantea da, berea etxebizitza arloa baita etxebizitza arazo nagusizat duen hiri batean. Ondorioz, herritarrekin zuzenean harremanak izatea erakundearen muinean dago: etxebizitza eskatzen dutenekin, alojeraren bidez bizi nahi dutenekin edo eskaintza egiten dutenekin, etxeak birgaitu behar dutenekin, diru laguntza propioak ematen baititu,... herritarrekin, jabeen elkargoekin eta, noski, eremu horietan aritzen diren erakunde zein eremu pribatuko eragile edo enpresekin.

Erakundeak aparteko izaera juridikoa duen neurrian funtzionamendu eta arau propioak ditu baina ezinbestez udaleko arau eta irizpideak betetzea ere badagokio. Adibidez, bertako langileei udaleko lan baldintzak ezartzen zaizkie, Udal Gobernuak agindu duen soldata igoera bezalakoak, onartu zitzaiena abenduaren 28ko Kontseiluan. Sektore publikoko erakundea den aldetik, noski baina, baita ere udaleko erakundea den aldetik langileak kontratatzeko prozesuetan berdintasun,

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

meritu eta gaitasun irizpideak ziurtatu behar ditu. Eta ikusi dugun moduan euskararen erabilera ziurtatze aldera, udaleko irizpideetan ere murgilduta dago.

Haatik ez da hori gertatzen ari. Euskarari dagokionez udaleko irizpideetatik urruntzen ari baita, eta langileei aukera berdintasuna ziurtatzetik ere bai.

Horixe gertatu baita erakundeak abian jarri duen barne promozio batean. Pasa berri den hilaren 25ean Donostiako Etxegintza EEPk bere Administrazio Kontseilua bildu zuen. Bertan beste gaien artean “Informe de aprobación de las bases para el proceso selectivo mediante promoción interna de tres puestos de técnico medio aprobados por Consejo de Administración de 10 de octubre de 2018” txostena landu zen. Txostenaren izenburuak dioten bezala erakundea barne prozedura jarri nahi du -eta jarri du, dagoeneko web orriari argitaratu baitu- abian bertako lanpostu batzuk betetzeko asmoz.

Oinarriak onartzeko unea ailegatuta, euskarari eman zaion trataera azalera da: euskara maila duenari, gehienez ere puntu 1 emango zaio merituen artean, hau da, lanarekin zerikusi zuzena duten bi ikastaro egin izanagatik emango zaion horrenbeste, edo lanarekin zerikusi ez hain zuzena duten bi ikastaro egin izanagatik emango zaion horrenbeste, edo argitalpen pare bat egin izanagatik emango zaion horrenbeste. Halaber azpimarratzekoa da euskararen ezagutza meritua dela, alegia, besterik gabe balore bat ematen zaio, eskasa, ikusi dugun moduan, eta ez da aurrez bete beharreko baldintza. Hori ez da Donostiako udaleko praxia. Onarpenari buruzko txostenak ez zuen erabakia justifikatu eta kontseilukideei ez zitzaizkien bestelako txostenik aurkeztu (Euskara Zerbitzuarena, HPSrena, edo dena delakoarena).

Lehenik eta behin, gabezia horrek eragozpen berria suposatuko du barne mailan langileek euskaraz lan egiteko garaian.

Bigarrenik, herritarrekiko harremanetan gabezia nabarmena izateaz gain, donostiarrek euskaraz egiteko duten eskubidea urratuko du. Teknikari ertain hauen lanpostuen ezaugarrien artean zehaztu da herritarrekin harremanak izango dituztela (“relaciones con ciudadanos y clientes” dio), argiago ikusten dena funtzio zehatzen zerrenda irakurriz gero, gai haur argitu bitartean eta prozedurari dagokion isil-gordea egiteagatik hemen errepikatuko ez duguna. Are eta gehiago beren soldatari osagarri berezia gehitu zaio etxebizitzetako bizilagunen bileretara joan beharko dutelakoan.

Gobernuaren ustez, beraz, euskaraz aritzeko gaitasuna izatea ez da beharrezkoa, postuen ezaugarrien arabera herritarrekin tratua izatea lanpostuaren funtzio inportantea izan arren, eta herritarrentzat horren inportantea den bizitza eremu batean, etxebizitzarenean, arituko diren arren. Jabeen komunitate baten bileran parte hartzerakoan nola ziurtatuko dute donostiar horiek euskaraz egiteko eskubidea?.

Hirugarrenik eta aukera berdintasunerako printzipioekin lotuz, kontraesaneko handia iruditu zitzaigun zergatik teknikari ertainen postuak betetzeko goi mailako titulazioa eskatzea baldintza den eta aldiz, euskara ez da baldintza, baizik eta meritua; hau da, postuari legozkiokeen baldintzen maila zergatik igo den baina euskara jakitea ez den baldintza izango, ez asko ez gutxi. Ez da beharrezkoa eta baloratzerakoan minimoetara eraman da, azaldu bezala.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Zertan dira lotuak euskara baztertzea, erdi mailako titulazioa eduki beharko lukeen postuan goi mailakoa eskatzearekin? Bada jasotako informazioen arabera ez direla gordetzen ari langileen sarbiderako beharrezkoak diren aukera berdintasun printzipioak, Udaleko praxietatik aldentuta eta ulertezinak diren baldintzak jarriz aritu baita Udal Gobernuak: titulazio maila, titulazio motak, ikastaroak konputatzeko modua,... Udaleko Lehendakartzako Sailaren oniritzia jasotzen duen txostenik ez dago (pertsonaleko gaiak dagozkion neurrian), Euskararena ez dagoen bezala; horretan lotzen dira euskarari dagozkion gabeziak sektore publikoan aritu behar diren langileak hartzeko prozedura honetan izan diren gabeziekin.

“Donostiako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Arauak” Udalbatzak onartu zituela 25 urte betetzearekin batera Udalak argitara eman zuen “Euskararen bizitasuna Donostian” aztertzen zuen txostena. Bertan zehazten den moduan 72.071 dira Donostian bizi diren euskaldunak eta donostiarren bi heren euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai da. Txostenak azpimarratzen du honako hau *“Donostiako sei enpresa zein sozietate publikoek ekin diote beren euskalduntze prozesuari: Dbus-Donostiako Tranbia Konpainiak, Donostiako Etxegintzak, Donostia Kulturak, Polloe Hileta Zerbitzuak, Donostia Turismoak eta Donostiako Sustapenak”*. Bukieran erronkak aipatzen dira eta honela marraztu zuen txostenak euskararen etorkizuna Donostian: *“Denon erantzukizuna da, udalarena nahiz beste gizarte eragileena, herritarrek beren hizkuntza hautuarekin adierazten duten eskaerari modu egokian erantzutea, eta hautu hori gauzatzeko dauden oztopoak eta inertziak gainditzea. Datozen urteetan aldaketa ikusgarriak gertatzera doaz, guri dagokigu herritarren aukerei bidea zabaltzea”*. Horiexek dira Eneko Goia alkate jaunaren hitzekin irekitzen zen txostenaren bukaera.

20 urte ere bete dira, Donostia aitzindari, Udalak lehen Euskara plana izan zuenetik. Batzordean esan zitzaigun Erakundeak ziurtatzen duela herritarrekin euskaraz aritzea. Baina ez zitzaigun argitu teknikari hauei dagokiena. Esan zitzaigun Euskara Zerbitzuarekin akordioa dagoela baina ez da lerro bakarra aurkeztu. Batzordean jasotako erantzunak entzun ondoren hasierako kezkek larriagotu dira eta Udalak eskuhartze zuzena egin behar duelakoan gaude, Donostiako Etxegintza EEPn egin nahi dena ez baitator bat Udalak ezarri dituen ildoekin, urrunago joan gabe 2018ko abuztuaren 7an egindako bilkuran, Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak “Euskararen erabilera normalizatzeko plana Donostiako Udalean - 6. plangintza aldia (2018-2022)” delakoak dioenarekin, edo beste maila batean Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak bere lehen tituluan ezarri duenarekin.

Agertu bezala, kezkek areagotu dira jasotako azken informazioekin ere. Hautatu nahi diren langileak berdintasunaren, merituen, gaitasunaren printzipioetan oinarrituta dagoen, eta dagokion publizitate egokia izango duen prozedura baten arabera hautatu behar dira. Sektore publikoaren baitako erakundeetan arituko direlako eta Donostiako udalaren mendeko erakunde batean arituko direlako.

Azaldutako guzti-guztia argitu bitartean Udal Gobernuak abian jarri duen prozedurarekin jarraitzea ez da bidezkoa.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Udalak bere zerbitzu guztietan donostiarren hizkuntza hautua bermatzeko konpromisoari jarraikiz, beharrezko instrukzioak eman ditzala bertan behera uzteko Donostiako Etxegintza EEPk abian jarri duen barne promozioa.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, aukera berdintasun printzipioei jarraikiz, ziurtatzeko Donostiako Etxegintza EEPk abian jarri nahi duen barne promozioa berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipioetan oinarrituta dagoen, eta dagokion publizitate egokia izango duen prozedura baten arabera izango dela.
- 3.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako Etxegintza EEPren barne promozioa dela eta, ziurtatzeko gaiari dagokion Euskara Zerbitzuaren txostena jasoko dela, eta bertan helaraziko diren gomendioei jarraituko zaiela.
- 4.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako Etxegintza EEPren barne promozioa dela eta, ziurtatzeko pertsonaleko gaiari dagokion Udaleko txostena jasoko dela, eta bertan helaraziko diren gomendioei jarraituko zaiela.

Donostian, 2019ko apirilaren 11n

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia